

## Soraluze, Australia... Bergara!

Eukaliptoia berriro ere. Inprimagailuko papera bota eta bota dabilta batzuk beren eguneroko lanean, kontuan izan gabe, hori bai, nondik datorren beren paper preziatua. Gipuzkoan oso gutxi daude, baina eukaliptoak nonahi ikusten dituzte. Bulegoko leihotik kontrolatzen dute dena eta ez zaie ezer ondo iruditzen. Oraingoan, Biodibertsitatearen eguna zuten aitzakia, baina GPS-ak kale egin zien. Eukalipto gutxi dago Gipuzkoan, %1 baino askoz gutxiago, nahiz eta espezie honek onura nabarmenak dakartzan, bai ekonomikoak zein ingurumen

Bideo batekin hasi zen guztia, zirkoa: eskaera bat bertan: "Eukaliptoia, Australiara!" Sinadurak jaso nahi dituzte hori lortzeko eta beren ekimenak ohiko tokietan izan du oihartzuna: "Bakoitza bere herrialdera". Hori da, antza, talde hauen lelo berria eta bost axola pertsona, zehin zuhaitzen historia. Toki bakoitzean betetzen duten funtzioa, edo noiztik dauden gure artean.

Biodibertsitatea beren erara ulertzen dute. Alferrik zabiltzate beste guztiak. Oker. Hori diote behin eta berriz, baina gezurretan dabilta berriro. Gauzak nahita nahasiz: laguntzak, baimenak, espezie inbasoreak... Bost axola egia. Eukaliptoak z du Administrazioaren inolako laguntzarik, beraz, alferrik ari dira laguntza horiek ken ditzaten eskatzen; landaketa hauek egiteko baimen gehiago ez emateko eskatzen dute, berriro ere gezurra. Baimen berezirik ez da behar. Eta segi...

Zu, bazkide, baso jabe, ez duzu zertan ezkutatu behar. Edozein zuhaitz mota landatzeko apustua egin baduzu, harro gaude zutaz. Zurekin gaude. Ez diezu horiei inongo azalpenik eman behar. Beraiek baino askoz gehiago egiten ari zara ingurumenaren alde. Puztu egiten dira, tarteka, urtean behin 500 zuhaitz landatzen dituztelako. Bi orrialdetako erreportajeetan aterako dira, paperean ere bai, noski, jakin gabe nondik datorren ere. Harrotuta, urtean 35.000 zuhaitz landa ditzakeen edozein baso jaberri eraso egiten diote, errespetua galduta. Gero CO2-az hitz egingo dute eta bitartean nahi dituztenak beren etxe santura bidali.

Guk ez dugu inor pikutara (bere etxera) bidaliko, nahiz eta edozein egunetan, autoa hartu eta gure herrira, gure lursailera etorriko diren argazkiak egitera. Nahiz eta gure lanaz eta izerdiaz behin eta berriz baliatzen diren, bai, beren unibertsitateko bulegoetatik edo funtzionari lanetik ateratzen direnean. Egia hutsa azaltzea besterik ez zaigu geratzen. Datuak. Eta lanean jarraitu, beldurrik gabe.